

AN DRO ME DAN

Joxean
Sagastizabal



n a r r a t i b a

ereun

ANDROMEDAN

Ba al dago gotzainik andromedan?

Narratiba, 128

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zafiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2020ko azaroan

Azala:

Erein

Maketazioa:

Itxaropena

© Joxean Sagastizabal

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-651-1

L. G.: D 1126/2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

Joxean Sagastizabal

ANDROMEDAN

Ba al dago gotzainik andromedan?



1

–Jorge, mesedez, Jorge. «Eminentzia», honek; «Jaun txit gorrena» horrek... seko aspertzen naiz. Zuri nola deitzen dizute? Jainkoagatik, badago «santutasun» esaten didanik...

–Juan naiz, badakizu, baina lagunentzat, Juantxo, eminen... Jorge?

–Jorge, Jorge. Zinema gustatzen?

–Ba bai.

–Baina oso gaztea zara... gogoratzen Charlton Heston, Burt Lancaster, Kirk Douglas, Gregory Peck, Robert Mitchum? Niri John Wayne... ez... bazuen zerbait...

–Denak, denak daude western klasikoetan, oso zalea naiz.

–Ba aita Larrañagak denen antza du; a! eta Humphrey Bogartena! Eta Eastwoodena!

–Ba ederra, nahasketa.

–Zeuk ezagutzen duzu?

–Ez, baina aditzea badut, noski.

–Seguru, askoz jende gehiagok du bere aditzea, «eminentzia» honena baino.

Dudarik gabe, eta halere merezi zuen gure gotzaina, «Jorge», ezagutzea, elizgizon berezia oso. Bazen «artzain

nagusi» apaizgaitegian sartu nintzenean, orduan Larrañagak ez zeukan osperik. Azken urteotan, berriz haren «erresuma», Santageda... zer zen hura! Gainerako elizak betetzen ziren auzoko txoripan-egile onenaren hiletan, baina Larrañaga-Enea beti topera, zela bataioa, jaunartzea, ezkontza edo Turkmenistango misiolarien gaineko hitzaldia. Zazpigarren Eguneko metodistek ere ezagutzen zuten.

–Badakizu zertarako nahi zaitudan? Antzemango diozu, ezta?

–Ba egia esan, Jorge...

Santagedara nindoan... oilo-ipurdia jartzen zitzaidan. Bob Dylanen telonero? Eliztarrok nire eskuetatik ezer hartuko ez zutelakoan nengoen; ostiak, behar bezalakoak, behar adinako jainkoz lepo, Larrañagak emanak.

–Dena jakin nahi dut, den-den-dena. Karismaz gain (badu, ezin uka) halako arrakasta izateko, geure begiek ikusterik ez duten zerbait egon behar. Ez derrigor zerbait... usain txarreko, e? Sekretua argitara atera, Juantxo.

–Ez naiz estreinakoa izango, ezta? Bidaliko zenuen espiarik aurretik.

–Bai, gizona, zazpigarrena haiz, zara, barka. Guztiok egundoko xelebrequeriak kontatzen zizkidaten, sekulakoak, funtsik gabeko txorakeriak. Larrañagak sorgindu, nonbait.

–Eta zergatik ez nau neu sorginduko?

–Ezin jakin, baina frontera bidali aurretik informatu naiz soldaduez, e? Apaizgaitegiko zure tutore guztiekin hitz eginda nago. Tomas apostolua bezalako norbait nahi nuela,

fidagaitza, ukitu egin behar duena sinetsiko badu, konbentzigitza...

–Horrelakoa naiz?

–Ideiarik ez inork, badakizu zure tutore izandako guztien batez besteko adina laurogeiren bueltan dabilela... baliteke Larrañagak zeu ere sorgintzea. Gertatzen bada, zergatia interesatzen zait.

–Jorge, igual ideia ona litzateke eliztar gisa azaltzea parrokiara, pentsatzekoa da espia baten aurrean normalean bezala ez dela ariko.

* * *

Ez, lagunok, ez nuen espero nire «apaizgintza» horrela hasterik. Hau askoz hobea zen, oilo-ipurdia eta guzti... espia, jopelas. «My name is Txo, Juan Txo».

Eta horrela hastea espero ez zuen haxe nolakoa zen? Nolakoa naiz? Zergatik naiz apaiz? Nolakoa nintzela esango zuten nire tutore hiperadintsuok?

Ez baita esplikatzten erraza. Badakizue, «*Los caminos del Señor son inexplicables; no, inseparables; no, INEXTRICABLES!*». Egun hauetako batean ea ditzosozko hitz horren esanahia begiratzen dudan!

Apaiz nintzen... kontu familiar batengatik, baina Axular kontra legokeen arren, utz dezagun gerorako.

Santageda langile auzoko parrokia da, umila; betiko adreilua, plazatxo usodun iturriduna aurrean, non atsoak, alegia amama jator askoak, eta txapeldun aitaitak

denbora-galtze-goxoan ari diren eguzkitan. Eguerdiko meza-
tarako garaiz; perfektu, Txo. Kanpaiak hoska hasi eta atsoak,
aitaitak eta izkina guztietatik agertutako gizaldra bat abiatu
zen elizara, kolore eta itxura guztietakoa.

Agertu zen Charlton-Burt-Kirk-Gregory-Robert-Humphrey-Clint Larrañaga. Ponte izenik ez nekien.

Ez zen horrenbesterako.

Bazuen presentzia sendoa, bai; ahots ederra, hizlari fina;
bere buruaz oso ziur; entzuleak (entzuleok) adi-adi ginduz-
kan; ez zuen irakurtzen, meza oso-osorik buruz zekien-eta;
harira zetozen inprobisazio biziak uneoro, serioa hau, pi-
perduna hura; askotan gurutziltzatuari mintzatzen zitzaion,
kolega-kolega, irribarretsu; ofiziorako kolore-konbinazioa
nik sekula ikusi gabea, eta fisikoki altu, guapo, interesgarri,
erakargarri, egundoko ile mataza, seduzitzaile, ikasia, jende
aurrerako jaioa, kantari aparta...

Baina ez zen horrenbesterako.

Forma sakratua altxatu zuenean... a ze intentsitatea, ene
Jauna! Espazio sideraletako isiltasuna.

Denok, % 100, joan ginen Jauna hartzera. Ostiaka (hau
apaiz batek esan dezake) gure parrokoa bakar-bakarrik. Gi-
nen lagun mordoa ginela ere, Larrak segundo batzuk pasa-
tzen zituen bakoitzarekin, denoi irribarrea, begiak begietan.

–Jaunaren gorputza...

–Amen.

Elizatik plazatxoko usoengana zonbi-zonbi irten nin-
tzen. A... ze... gauza...

–Aita Juan...

–Bai?

Esperientzia handirik gabeko espia, bai.

–Zer moduz? –Eskua luzatu zidan.

–Ondo, aita Larrañaga. Begira, ni...

–Lasai, gizona. Gotzain maitea berriz ekinean!

–Nola jakin duzu? Barkatu, ez dakit zure izena... baturuan aditu diot bakarren bati «santua» esaten, baina...

–«Santua» ez; Santos da nire izena, Santu Guztien egunean jaioa.

–Santos, *el superagente 86* baino okerragoa naiz? Halako apaiz usaina?

–*Et quae paulo avis ad me.*

–Zer?

–Baina mutiko, latina fresko-freskoa edukiko duzu!

–Latina? Ezta ideiarik ere.

–Baina ez da posible. Nola gainditu zenuen azterketa?

–Jesus, ba Googleren itzultzailearekin!

Bizkarra puskatu zidan, algara batean.

–Eta aztertzaile, nor, aita Nestor? Zenbat urte ditu, ehun?

–Laurogeita hemezortzi. Zer esan didazu latinez?

–Txoritxo batek txibatu zidala. Goazen, parrokia erakutsiko dizut.

Zer zegoen ba ikusteko? Hain txikitxoa...

Egongela eder batean atso mordoa, alegia amama maitagarriak, karta-jokoan ari ziren, prentsa irakurtzen, berriketan;

tea, kafea, infusioak, zukuak zanga-zanga; galleta eta opilak jaten; zerbitzari, hiruzpalau gizon gazte (hogeita hamarren bueltan), oso atseginak. Beste gela batean, plazan ikusitako aitaita txapeldunak musean eta tutean, prentsa (*Marca*) irakurtzen, berriketan, tea, kafea, infusioak, zukuak, zanga-zanga; galleta eta opilak jaten; zerbitzari, hiruzpalau neska gazte (hogeita hamarren bueltan) oso atseginak. Beste gela batean, talde heterogeneo bat *Robinson Crusoe* irakurtzen eta aztertzen ari ziren; arduradun, hogeita hamar bat urteko neska bat, oso atsegina.

Sukaldaritza lantegitik pasatu ginen, aroztegitik, Tai txi saiotik, gimnasia erritmikotik, hizkuntza-eskolatik (frantseza, ingelesa, alemana, swahili, arabiera, errusiera...), eta beste leku mordo batetik.

–Jesus, kanpotik hain txikia ematen du... paddel pista bakarrik falta.

–Hirugarrenean dago. Ikusi nahi?

–Ez, ez, laletxe!

Dena ikaragarri garbi eta txukun.

–Kolaboratzaile asko dituzu, ezta?

–Pilo bat. Zure apartamentua erakutsiko dizut.

Deskribatzen ez nuke asmatuko. Ikusgarri, argitsu, moderno, king-size, *inextricable* (agian)...

–Goazen bazkaltzera.

Jantoki goxo-goxo batean, buffet bikaina zegoen eta festetako giroa. Sukaldetik sartu-irtenean dozenaka neska-mutil ari ziren (hogeita hamarren bat urtekoak), eskuetan gauza

itxura ederdun eta usain mundialdunak. Zenbat jende ari zen mastekutzen buila batean... ehunen bat? Batzuk begibistako eskaleak, baina baita ere exekutibo gorbatadunak, etxeko andreak, hippyak, bi japoniar (gustura asko). Arroz entsalada fruitu tropikalekin eta garbantzuak curryarekin niretzat, zerutiarrak, eta sagar-tarta. Lekua, begetarianoa, eta alkoholik ez. Apaizgaitegiko ehunka urtetan a ze jan eskasa, dios!

–Santos, hau ez zait kabitzen buruan.

–Badakit, jendea aho-zabalik geratzen da.

–Eliz barrutiak xentimorik ez zuelakoan...

–Gotzainak ez du sosik bat ere.

–Bide batez –inguruari begira–, non ordaintzen da?

–Inon ez. Borondatea onartzen da.

–Amancio Ortegaren gaztetako laguna zara? Bill Gate-sen lehengusua? Jendeak diamanteak botatzen ditu mezako diru-zorroan?

–Izan zara mezatan, diamanterik ikusi? Jendea umila da, gehien bat.

–Orduan?

–Zeuk deskubrituko duzu eta neuk ere gauzak esango. Erruduna, Origenes.

–Origenes? Elizaren Aitetako bat? Horrek ez al zituen koskabiloak-eta moztu?

–Bai, jauna. Horrexegatik ez da «San» Origenes. Hitz egingo dugu hartaz. Orain, siesta. Gotzainari deitu eta ikusitakoa kontatu... ez, zu majoa zara; gotzainari esan behar

diozu parrokia normal askoa dela. Aurreko sei espiek egia esan eta segituan misioetara bidali zituen Jorgek. Eliza txikia eta apala da, eta nire laguntzaileak, lau atso. Horixe esan, mesedez.

Horixe esango niola, haren xarmaren sareetan gatibu (gustura asko).

Jorgek esan zidan aurrekoek egundoko gauza xebreak kontatu zizkietela, errealitatearekin zerikusi gabeak; bazirudiela espia ganorazkoa aurkitu zuela. Animo eta aurrera.

Ni, siestara. Gauzarik sakratuena apaiz baten bizimoduan.

Eta egin nuen amets.

Argi berezi bat, epel, deigarri, sartzen zen logelara. Kux-kuxeatzera irten nintzen. Hantxe zeuden Santos-Enean leku orotan ikusitako neska-mutil gazteak, flotean airean, eskutik helduta, begiak itxita, distiratsu.

Ni begira, liluran.

Hizkuntza-eskola irakasleetako bat (neska) konturatu zen *voyeuraz*.

Irri onberaz atera zen zirkulutik, etorri zitzaidan, kope-tan ukitu...

Eta esnatu.

Kafearen ordua. Santos nire zain, itxuraz.

–Zergatik gezurrak gotzainari?

Kafea, bikaina. Opil pare batekin.

–Ikusitakoa kontatu bazenio, Tanzanian zeundeke honezkero, aurrekoak bezalaxe. Jorge askotan etorri da hona.

Berak parrokia umila eta lau atso laguntzaile ikusten ditu; gauza anormal bakarra, jendetza, hori bai.

–Bisitetan gotzainak ikusiko zuen derrigor neuk ikusitako horixe, ezta? Zenbat ekintza, zenbat lan sozial, zenbat animazio eta parte-hartze...

–Jorgek ez du horrelakorik ikusten.

–Ez ditu garbantzua curryarekin ikusten?

–Hemen ez dago jantoki sozialik.

–Santos, laguntxo...

–Informazioa, neurrian, bestela egingo zaizu neurona pitzatu. Ea ba, nondik hasi?

–Hasieratik?

–Orain dela bi urte-edo –orduan gimnasia erritmikoko monitoreak zerbait xuxurlatu zion–. Begira, hau oso ondo datorkigu.

Eskaileretan behera abiatu ginen... bost solairu, eta segitzen zuten; lur azpian bazen Santoslandiarik.

Egongelatxo batean lau kolaboratzaile zeuden hogeita hamar bat urteko pertsona ezezagun batekin, baina honek ere denek eitea zeukan, guztiek lehengusuak ematen zuten. Hizketan ari ziren... zein hizkuntzatan, aztarrenik ez; latina ez zen.

–Laguntzaile berria?

–Berria, bada.

Santos taldera hurbildu eta *aztarrenikezeraz* hasi zen berriketan. Debatean aritu ziren, sutsu baina gizabidez; ez zuten berehalakoan bukatu, hura jardun beharra... aprobe-txatu beharko nuen hizkuntza-eskola.

Hiru kafe (oso onak) eta hiru opil (mundialak). Berria halako batean eskaileretan behera joan zen. Gainerakoak oraindik ere mingaina astintzen. Nire ametseko irakasleak begiratu egin zidan... zer zuten begi horiek? *Inextricable-tasun* punturen bat...

–Ez latinez, ezta aritu zareten hori ere, Santos.

–Eternicum da, milaka milioi hiztun dauzka. Tira, orain dela bi urte ezagutu nuen lehenengoa. Izena zuen, izena du, Azazel. Elkar ezagutzen omen duzue, eta kuxkuxero bat omen zara.

–Hizkuntza-eskolako irakaslea? Nire amets batean agertu zen. Zenbat urte ditu? Hogeita hamarren bat?

–Dezente gehiago. Etorri zen aurrenekoa, lehen «zalan-zatia». Horrela esaten diet taldekoei.

–Azazel esan duzu, ezta? Neska ala mutil izena? Hain... androginoa da.

–Berdin dio. Zeruko izakia da.

–Alienigena?

–Aingerua.

* * *

–Beraz, Latina Googlerekin gainditu zenuen, baina Historia ez, ezta? Badakizu nor izan zen Origenes.

–Bigarren mendean? Hor nonbait?

–184an jaio, 253an hil. Origenesek Apokatastasia defenditu zuen, bere dotrinaren zutabe nagusi...

Ezetz buruaz nik. Ideiarik ez, alegia.

–Origenesek defenditu, Elizak arbuiatu. Apokatasta-
siak dio Kreatzailearen emanazio guztiak, kreatutako guztia,
noizbait Amaren, edo Aitaren, magalera itzuliko dela, Jain-
koarekiko batasun minera...

–Ze ideia goxoa.

–Ez orduko hierarkiarentzat. Heretiko, deabrukume...
Ihesean ibili zen, bere tesiak ez ziren nagusitu. Galileo gogo-
rarazten dit. Biek arrazoi, lurra eguzkiaren inguruan biraka,
kreatura guztiak etxeko epelera bueltatuko dira.

–Guztiak?

–Badakit zer duzun, nor duzun, buruan. Satan, seme
etxekaltea, bueltatuko da. Infernu betirakorik ez dago. Uni-
bertsoaren hedatzea-uzkurtzea esateko beste modu bat da.
Kreaturak urrundu egiten dira, batzuk ikaragarri, eta halako
batean etxerako bideari ekiten diote.

Badakit zer ari zareten pentsatzen. Jakin nahi duzue kafea
hartzen eta opilak jaten ari ote nintzen Historiako klasean.

Bai.

–Prozesuak milaka milioi urte dirau?

–Guretzat bai. Haientzat –laguntzaileak seinalatuz–
askoz gutxiago; beren «kronos» propioa dute, bestelakoa.
Gure orainean aingeruak daude, demonioak (nahiz eta ez
den batere hitz egokia) eta zalantzatiak.

–Eta Azazel zalantzia da.

–Ez. Orain ez du dudarik. Orain dela bi bat urte nire
despatxora agertu zen, nire parrokia txikitxoan, gure gotzai-
nak gaur egun ere ikusten duen horretan.

–Zergatik ikusten du horrela?

–Ba esaten didatelako ez dela fidatzekoa. Ez dute nahi betiereko itzulera inork gerarazterik. Aingeruek gotzainaren begiak lausotzen dituzte.

–Eta ni banaiz fidagarri? Eta Origenes berria zeu zinateke, heretiko eta pertsegitua? Santos, ez zenuen ba...? –Guraizeak itxuratu nituen nire hankarte parean.

Hipopotamo-algaraka hasi zen.

–Mekauen! Erakustea nahi?

–Hainbeste galdera dauzkat! Azazelek neska ematen du, ezta? Beste batzuek mutil...

–Gure begietara, bai. Baina denak genero bakar batekoak dira; alegia, inongo generorik ez dago. Gure erara agertzen dira, atsegin zaien forma batean, kontaktua erraztearren.

–Kreatutako guztia Amarengana bueltatuko bada, errendentzio beharrik ez, ezta? Ez dago inor sakrifikatu beharrik gizakion bekatuak kitatzeko, ez dugu salbatzailerik behar... orduan, Nazareteko Jesus?

–Mistiko handi bat. Gertatzen ari denaz jakitun, ikusten duenez Adimen Kosmikotik urruntzeak sufrimendua dakarrela, Argira bueltatzearen alde jokutzen du mistikoak. «Gaiztoek» kontrakoaren alde. Adimen Kosmikoa, «Ama», maitekorra da, baina maitasun horren helmena ez da infinitua, oso-oso urruti dagoena ez da maitatua sentitzen, eta orduan, gorrotoa nagusitzen zaio.

»Azazel etorri zitzaidan egoki iritzi zionean. Esan zidan Biblian kontatzen den «matxinada», hainbat aingerurena,

gure presentean ari zela gertatzen. Gogoratu kronos propioa dutela. Alegia, oraintxe hainbat espiritu puru, hainbat kontzientzia goren, horixe baitira aingeruak, Argirantz ari dira, beste asko iluntasunerantz, eta zalantzatiak nora jo ez dakitela. Esan zidan argi zalea zela baina lagun «ilun» onak zituela... gero gehiago agertu eta parrokian jarri nituen lanean, eta lehengo elizatxo hura oraingo enporio bihurtu zuten, Jorgek ikusten ez duen hauxe. E, arrosarioaren ordua! Gero arte!

Eta ziztuan joan zen.

Indiana Jonesenak bezalako abenturarik nahi? Apaiztu!

Horixe, horixe esaten zidan gure aita zenak.

Aita apaiza zen, bai, Goian Bego. Beste egun batean igual kontatuko dizuet.

Azazel hurbildu zitzaidan.

–Zu zara nire aingeru guardakoa? –Bihotzetik irten, zinez.

–Ez, Juantxo; ez dago horrelakorik.

«Ba ikaragarri gustatuko zitzaidan», nire kolkorako.

Aingeru baten aurrean zaudelarik sentitzen dena deskribatzea baino gauza zailagorik... Igualean *inextricablea* da.

–Ametsa izan zen ala benetan ikusi zintuztedan?

–Ikusi egin gintuzun, gure argiak erakarrita. Lotan jarri zintudan ideiarik onena zelakoan.

–Eta zertan ari zineten?

–Gure hizkuntzan, eternicumean...

–Zenbat hizkuntza dakizkizu?

–Guztiak.

«Horregatik hizkuntza-eskola, jakina».

–Eternicumak hitz itzulezin asko ditu. Ari ginen... atsedenean elkar konfortatuz, holako zerbait.

–Euskara zaila da?

–Euskara ikaragarri erraza da.

Azazeli ez zerion arrosa zerutiarren urrinik; a ze pena. Denak berdin janzten ziren, bakeroak eta alkandora urdin argia; kirol zapatila zuriak. «Neska» itxurakoa bazen ere, bu-larralde lau-laua; a ze pena.

–Santosek gauza asko kontatu dizkizu...

–Bai, horixe.

–...baina ez kontatu beharreko guztia. Uste dut hobe dela jakitea: gure senide ilunak oso asaldatuta dabilta, oso aktibo...

–Zer egiten dute?

–Zuengan sartzen dira.

–Alegia... deabruak jendeaz jabetzen ari dira? Pertsona poseituak? Exorzizatu beharrekoak?

–Zuen hitzetan, bai.

–Eta Santos exorzista da?

–Bai.